



Ongietorri beroa egin diote herritarrek Ion Mintegiagari

IBARRA ▶ Bost urte espetxean egon eta gero,
atzo eguerdian utzi zuten aske ibartarra ▶ 6



Leongo Mansilla de los Mulos espetxetik atera zen unean aurrekua dantzatu zioten. HITZA

LIZARTZA ▶

**500 lagun
«herritarren
erabakia
errespetatzea»
eskatuz** ▶ 6



Ezker abertzaleak atzo deitu zuen manifestazioaren une bat. ESTI EZEIZA



E. EZEIZA / N. GARZIA



Giro polita Tolosako eta Irurako jaietan

TOLOSALDEA ▶ San Miguel jaietan nahiz Alde Zaharreko estreinako Festan jendeak ederki igaro zuen antolatu zituzten ekitaldietan ▶ 7

LEHEN ETA ORAIN ▶



IMANOL GARCIA



San Miguel parrokia, barrutik nahiz kanpotik, eraberriturik

Erredakzioa ▶ 15 hilabete iraun zuten eraberritze lanak eta gero, hilaren 16an inauguratu zuten herritarrek Irurako San Miguel parrokia. Ekitaldi ofiziala, baina, atzo egin zuten. San Miguel egunean, herriko jaien baitan. Eraberritzea barrutik eta kanpotik egin dute argazkietan ikus dezakegun bezala; ezkerrean eta goian lehen kan-

poaldetik zuen itxura ikus daiteke, eta behekoan pareta, guztiz eraberritua, kolore ezberdinetako harriz eta morteroz berritua dago. Eskuinean eta goian, barrualdeak lehen zuen itxura ikusi daiteke; behean, berriz, berritua ageri da, aldea, erretaula eta bi leihorekin. 735.000 euroko aurrekontua izan du eraberritzeak. IMANOL GARCIA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Martziano bat hirian



Behin, euskararen jatorriaz galdetu zidanean, aspaldi telebistan *freak* bat euskaldunak ez dakit ze galaxiatik gatzela esaten entzun nuela kontatun lagun errumaniar bati, eta egia esan ez nuela hori baino teoria hoberik ezagutzen. Grazia egin zion. Orain gutxi, beste batek lagun errumaniar horren aurrean galdera bera egin zidanean, honек *the official language of mars* (marteko hizkuntza ofiziala alegia) bezala izendatu zuen euskara, nik behin bota nion erantzuna gogoratuz. Grazia egin zidan. Eta gustatu ere

gustatu zitzaidan, batez ere gune (ustezko) ezkerriar batzuetan ohiko diren jarrerara batzuekin alderaketa tentel bat egiteko aukera ematen didalako.

Ohikoa izan ohi da, Euskal Herriatik kanpo zaudenean, lagun talde baten aurrean euskalduna (eta euskalduna bakarrik) zarelara esatean norbaitek (espainola eta ezkerriarra normalean) bera munduko hiritarra dela erantzutea, zera, *ciudadano del mundo* horietakoa. Eta segituan ulertzen da tipoak esan nahi duena: nik jarrerara atzerakoi, tribal eta itxi bat defendatzen dudana bitartean hark ikuspegi irekiago bat hartzen duela, bere buruari nazionalitate finko bat ukatu eta kultura desberdinez osatutako gune kosmopolitak egiten dituela aberri. Ez da sinesgarria. Alde batetik, halako gune multikultural bat sortzeko be-

harrezkoa da ni bezalako desfasatu tribal desberdin pila bat batera jartzea. Bestalde, munduko hiritarra (ustez) espainola bada, arraro bada behintzat elebakarra denak elebidunari kultura eta hizkuntzekiko jarrerara irekiagoak hartu behar dituela irakatsi nahi izatea. Cuencako kosmopolitarena ez dut oso ongi ulertu oraindik, baina tira, nire errua izango da agian.

Egia esan, ez zait gehiegi inporta. Nire lagun errumaniararen okurrentziari esker, euskalduna naizela esanda norbaitek bera munduko hiritarra dela erantzutean, ni orduan martekoa izango naizela botako diot. Euskaldunak martziano xamarrek bagara batzuetan, eta nazioa ukatzen digunari planeta oso bat (hizkuntza ofizial eta guzti) geure egiten dugula erantzutea ez dago gaizki.

ERASOA ▶

Sabotaje batek tren zerbitzua eten du Tolosaldean

ERREDAKZIOA

Atzo goizeko hamaikak alde-
ra katenaria tentsatzen du-
ten kableak moztu zituzten
Alegia eta Ikaztegieta artean,
eta, ondorioz, Tolosa eta Le-
gorreta artean Renferen tren
zerbitzua etenda egon zen
hiru ordu eta erdiz. Konpon-
du bitartean, zerbitzurik ga-
beko tartea egin behar zuten
bidaiariak autobus bidez
eraman zituztela agertu zuen
Renfek. Erasoa gertatu eta
lehenengo uneetan, Tolosa
eta Legorreta arteko zati hori
ez ezik, Donostiatic Tolosara-
koa ere zerbitzurik gabe izan
zen. Sabotajeak 1.100 bi-
daiari ingururi eragin zien
Renferen arabera, aldirietakoei
ez ezik, baita Irun eta
Bartzelona arteko bidea egi-
ten duen ibilbide luzeko tren-
nari ere.

IRITZIA ▶ IKER OTERMIN

Lizartza eredugarri

Bada gure eskualdean azken urte
hauetan zeresan handia ematen ari
den herri txiki bat. Joan den ostirale-
an behin baino gehiagotan entzuten zen
Lizartzako kasua Eusko Jaurilaritzako poli-
tikoan ahotik, mintzagai izan da komunika-
bideetan maila nazionalen nahiz nazioar-
tean (baita *Time* aldizkari famatuan ere),
eta egia esan ez da gutxiagorako, nolabait
esateko, Lizartza Euskal Herriko gatazka
politikoaren erakusle horik gardenena
bihurtu baita azken lau urte hauetan.

Ez da gauza berria Alderdien Legeak
konkista handia suposatzen duela bai espainiar
bai euskal burgesiarentzat. Argi geratu da lege
hau behar bezain bestetan arbitrarioki erabili
eta erabiliko dutela eta arazoak ematen dizkien
edozein erakunde kriminalizatu eta jarraituko
dutela. Azken finean, gaur egun boterean den estatu
zapaltzailearen benetako izaera erakusten digu,
atzoko faxistak gaurko demokratik, hitzak eta
izena aldatuz, baina helburu eta bitarteko poli-
tikoko berekin. *Trantsizio*rik egon denaren
gezurra geroz eta ageriago dago, konstituzioa,
Auzitegi Nazionala, parlamentua eta indar poli-
zialak gorputz beraren atal ezberdinak direla
eta norabide berean mugitzen direla geroz eta
argiago agertzen da errepresioa gogortzen duten
pauso bakoitzeko.

Lizartzak, eskualdeko nahiz Euskal Herri-
ko beste herri askok bezala, ondo gorde ditu
ezkerreko tradiziozko borrokalariaren urteetan
zehar. Orain dela lau urteko udal hauteskunde-
tan ordea, ezker abertzalea legez baztertua izan
zenezan ederki aprobetxatu zuen EAJ-PNVk
Joseba Egibar bidaltzeko nahiz eta inongo legiti-
mitate demokratikorik ez eduki. Noski herri-
tarren erantzuna ez zen gutxiagorako izan eta
lau urtez egon dira egoera antidemokratiko
hau salatzen eta gogor borrokatzen, behar
den bezala alegia. Aurten go hauteskunde-
etan berriz apartheid politikokoak bere hor-
retan ziharduen eta PP izan zen Udala har-

tzeko saiakera egin zuena Regina Otaola
buru zuela. Lizartzako herritarren erantzuna
irmaoa izan zen, Alderdien Legearen aurka
egin zuten, nahiz eta EAJ-PNVri babesa
emateko aukera existitzen zen, argi jokatu
zuten bi alderdiek, nahiz eta fraseologia oso
ezberdinak eduki, txanpon beraren aurpegi
bezala bereiztuz.

sek demagogikoki erabiltzen dituzten bi-
tarrean langile klaseak ondotox dakizki
praktikan zer esan nahi duten. EAJ-PNVk
ikurrina erabiltzea eta honekin batera Egib-
ar berak azkenaldian hitzaldi erradikaliza-
tatuak botatzea iruzur berdinen zati dira.
Bata polizi zintzoarena eta bestea gaizto-
arena baina biak polizi. EAJ-PNVk



Regina Otaolaren izena gaur egun apa-
rra bezala igotzen ari da komunikabide-
tan, udaletxean eta herritarren aurka hartu
dituen neurriak bere karrera politikoko ospea
lortzeko maniobrak dira, azken batean
Egibarrek egin zuenaren antzera nahiz eta
maila errepresibo handiago batean. Ban-
dera espainolaren eta ikurrinaren borro-
kaz asko hitz egiten da baina atzean borro-
ka sakonagoa dago, klasearteko borroka.
Askatasuna eta demokrazia denen ahotan
dago, baita San Gilenean ere, baina bi hi-
tzok bere esanahia dute eta politikoko bur-
ge-

ibaretze Plana Ertzaintzak Batasunaren
egoitzak ixten ari zenezan atera zuen eta ber-
ritz ekiten dio herri galdeketa proposa-
menari Alderdien Legeaz ederki aprobet-
xatzen ari den honetan. Baina benetan
galdeketa hau herritarrok nahi dugun au-
todeterminazio eskubidea lortzeko bide
bat izan al daiteke? Begi-bistan uzten ari
da, oraingoan ere, Alderdiaren Legeaz
aprobetxatu eta ezker abertzaleko botoak
erakarri nahi dituela, horregatik iruditzen
zait lizartzarrek erakutsitako jarrerara ere-
dugarri.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Oresa. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitz.): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Nerea Lopetegiren argazkia, ederrena harpidedunen ustez

Leaburuarrak irabazi du VI. HITZA Argazki Lehiaketa; bigarren saria Amaia Sagastik eraman du, eta hirugarren saria Jon Pagolarentzat izan da



Lehen saria. Leaburuko Nerea Lopetegik irabazi du, Norvegiako fiordoan argazki eder honekin.

ERREDAKZIOA

VI. HITZA Argazki Lehiaketa Nerea Lopetegi leaburuarrarentzat izan da. Norvegiako fiordoetan ateratako argazkia izan da finalisten artean ederrena, botoa eman duten harpidedunen ustez. Argazkia bidali zuegan hau kontatu zigun: «Norvegiako fiordo misteriosu honetako argazki hau bidaltzen dizuet, non bertako kaio batek argazkirako pose eder bat eskaintzen digun».

Bigarren saria, berriz, Amaia Sagastirentzat izan da. «Indian izan naiz. Varanasin ateratako argazkia bidaltzen dizuet, Ganges ibaiari ateratakoa. Jendeak bere bizitza bertan egiten zuen», zioen tolosarrak.

Eta hirugarren saria Jon Pagolak eraman du. «Marokon aterata dago argazkia, lau lagunek furgonetaz eginiko bidaiari. Maroko osotik ibili ondoren azkeneko egunak leku zoragarri honetan igaro genituen. Asilah da herria eta Koben hondartza deitzen diote le-

IRABAZLEAK ▶

Hauek dira zuek aukeratutako argazki irabazleak eta sariak:

Lehen saria.

Nerea Lopetegi (Leaburu). Mendexa-Lekeitioko Villa Itsaso hotelean bi lagunentzat asteburua.

Bigarren saria.

Amaia Sagasti (Tolosa). Zumaiaiko talasozelari talasoterapia zentroan bi pertsonentzako zirkuitua.

Hirugarren saria.

Jon Pagola (Tolosa). Tolosako Denak tabernan lau pertsonentzako afaria.

Boto-emaileen artean.

Mari Kruz Gurrutxaga Lasa (Tolosa). HITZAko materiala.

Harpideduna sarituz

Beste behin TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK bere harpidedunak saritu nahi izan ditu. Parte hartu duzuen guztion artean HITZAK zozketa egin du, eta materiala (kamiseta, aterkia eta mendiko gerri poltsa) banatuko du. Irabazlea, Mari Kruz Gurrutxaga Lasa izan da. Zorionak! ◀

kuari. Argazkian, iluntzean dromedarioak hondartzan pasean».

Lehia estua

Lehia oso estua izan da finalista guztien artean. Guztira 48 harpidedunek eman dute botoa. Irabazleak boto hauen %25a lortu du; bigarren sailkatuak, berriz, %22,9a eta hirugarrenak, %18,75a. Laugarren sailkatua Juanjo Esnaola izan da, %16,6arekin. Ainara Zubeldiak lortu du bosgarren postua, %8,3arekin; seigarren postua Karlos Mendibilentzat izan da, %4,1arekin eta Alain Fernandezek eta Leire Zabalak berdinketa lortu dute, biek ere %2,08arekin.



Bigarren saria. Amaia Sagasti tolosarrak Indian ateratako argazkia.



Hirugarren saria. Jon Pagolak Marokon ateratako argazkia.



“Natura bezain eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308 berria





eskualdeko aukera hoberenak!

Idra Nordikoak

Ibaiondo 15 • Irura
943 69 16 77
contacto@idranordicos.net

ITXASO LEUNDA ▶ TRIATLOILARIA

«Ez nuen uste aurten hain emaitza onak lortuko nituenik»

Denboraldi bikaina egin du Hernialdeko triatloilariak, arantza bakarria Espainiako Txapelketa izan dela dio



UR ALGERO

UR ALGERO

Granadatik (Espainia) etorri berri da Itxaso Leunda. (Hernialde, 1984). Bertan Espainiako Txapelketa parte hartzen izan da. Bigarren frogarako kanporatuta ustekabea izan du bertan. Hala ere denboraldi bikaina burutu du aurtengoan, Euskal Herriko Txapelketa irabazi du, Europako Txapelketa hamargarren sailkatu da eta Donostiako nazioarteko triatloian bigarren postua lortu du. **Nola joan da Granadako frogatua?**

Gaizki, helburuetako bat zen, baina psikologikoki oso nekata joan nintzen, fisikoki ongi nengoen. Erritmoa ere pixka bat galdurik nuen, bi hilabete neramatzan konpetitua gabe eta ustekabea izan da doblatu eta kanpoan geratzea. Erritmo faltan eta psikologikoki oso nekata egotean egon da arazoa.

Orokorrean aurtengo denboraldian emaitza onak lortu dituzu, espero zenuen ala ustekabea izan da?

Bueno, iaz asko hobetu nuen eta aurten ere hobetuko nuela uste nuen baina ez nuen espero. Adibidez, Donostiako nazioarteko proban bigarren postua lortu nuen eta hor nazioarteko kirolari asko egoten dira, oso maila altua dago eta hor podiumean egotea sorpresa bat izan zen. Hurrengo astean Bermeoko proba irabazi nuen eta poza oraindik handiagoa izan zen. Asteburu hau alde batera utzita oso sentsazio onak izan ditut.

Triatloia nahiko kirol ezezaguna da; nola hasi zinen triatloietan parte hartzen?

Lehenago lagun bati entzuten nion triatloiei buruz hitz egiten eta beti zer izango ote zen pentsatzen geratzen nintzen eta berak esaten zituenekin «tipo

hori erotuta dago» pentsatzen nuen... Hainbat urtetan triatloian hastea bueltaka izan nuen buruan eta Gasteizera ikastera joatean bertan dagoen talde indartsu batekin, SVC Seguridade, harremanetan jarri nintzen eta hor hasi nintzen. Azkenean engantxatu egiten zara.

SVC Seguridade taldearekin hasi zinen, orain Lekeitioko Garraitz taldearekin aritzen zara. Nola iritsi zinen bertara?

Triatloian jendea ezgutzen joaterakoan Garraitz taldeko zuzendaria ezgutu nuen eta oso pertsona jatorra da. Gasteizen zegoen giroa oso elitista zen eta ez zegoen taldeko girorik. Horregatik Garraitzera joan nintzen eta bertan oso gustura nago.

Igeri egitea, bizikleta, laisterka... zein da zure indargunea? Zertan hobetu behar duzu?

Hobekien bizikletan ibiltzen naiz, hobetu beharra berrizokiaren arabera da, Euskal Herriaren korrika maila altua dago eta hor hobetu beharra dut, baina Espainia mailan igerian dut gabezia handiena. Euskal Herriaren igerian oso ongi defendatzen naiz, beti lehenengotarikoa ateratzen naiz, baina gero Espainiara joaterakoan hortxe-hortxe ibiltzen naiz. Espainian gehienak igerilariak dira, orduan hor abantaila handiak lortzen dituzte, besteetan hobeki ibiltzen naiz, baina alde asko badago Granadako pasa daiteke, eta ezin da ezer egin.

Triatloilaria eta emakumea, behar beste leku ematen al zaito emakumeari triatloiararen munduan?

Nire ustez eta beste kirolekin konparatuta Euskal Herriaren behintzat bai, mutilek eta neskek zirkuito bera egiten dugu eta berdintasuna ematen da. Sariak ere gehienetan berdinak dira. Nik ezagutu dudanean behintzat berdintasuna dago.

Komunikabideei dagokionez?

Komunikabideei dagokionean triatloia nahiko bazterturik dago eta bertan ez gara asko ateratzen, halere niri erantzun ona eman didate. Proba garantzisuetan Donostiako triatloian adibidez, argazki bat jarri behar badute egunkariak, hori mutilen podiumarena izango da, hori bai. Baina hori betikoa da.

Normalean triatloian nahiko emakume gutxi aritzen zarete, zein da aurkariekin duzun harremana?

Egia esan oso harreman ona sortzen da, lasterketan bakoitzak ahal duena egiten du, baina aurretik eta ondoren giroa oso ona da. Hain gutxi izanda oso giro ona izaten dugu elkarren artean.

Dopinga iritsi al da triatloiarren mundura?

Niri ez didate inoiz probarik egin, baina adibidez txirindularitzan afizionatuen proba batean egiten ari ziren eta, esan zigutenez, hemendik aurrera triatloian ere hasiko dira kontrolak egiten. Hala ere kontrolak batez ere distantzia handietan egiten dira.

Datorren urtean hogei hiru urtetik beherako mailatik nagusirako jauzia egingo duzu. Zein dira finkatu dituzun helburuak?

Aurten nola ibili naizen ikusita beldurra daukat, aurten hogei hiru urtetik azpiko kategorian guztia eman dut, eta karrera gehienetan zerbait lortuko nuela banekien. Kategoría absolutuan ere podiuma esko egin ditut, eta horrek ere autoestimaa igotzen du. Hurrengo urte-

TALDEA

«SVC seguridade-
n giroa oso elitista zen,
Garraitzen giroa
euskaldunagoa eta
hobea da»

RAMON ELKORO

«Eskualdeko triatloilari
gehienek prestakuntza
berak darama eta
laguntza handia
ematen digu»

ra begira podiumetan sartzea izango da nire helburua. Denboraldia oraintxe bukatu da eta dagoeneko nola hobetu behar dudan pentsatzen hasi naiz, goian egon nahi dut. Aurten absolutuan ere zirkuito irabazi dut eta zerbait egitea espero dut.

Zer eman dizu triatloiak?

Lagunak. Jende pila bat ezagutu dut eta bete egiten nau, ez dakit nola deskribatu. Astebururo zerbait egiteko izaten duzu, oso giro ona dago, motibatua egiten zara... Batez ere giroa eta jendea.

Eta zer kendu dizu?

Kirol gogorra da, eta gauza askoren artean aukeratu behar da; adibidez, ikasturtean zehar nire dinamika ikasi eta entrenatzea da, eta lagunak asteburuan ordu erdiz ikusten dituzu... Gauza asko sakrifikatzen dira, baina gero muga horiek ere konpentsatzen dira. Gainera denboraldia amaitzean urtik abendura nahi dudana egiteko tarte izaten dut. Batez ere denbora kentzen du, baina konpentsatu egiten du.

Inoiz pentsatu al duzu Iron man proba egitea?

Nire buruan dabilen ideia bat da, aurten distantzia erdikoa egin nahi nuen baina nire gorputza oraindik prestatu gabe zegoela eta ez egiteko esan zidaten. Baina datorren urtean Zarauzko distantzia erdikoa seguru egingo dudala. Iron mana oraindik ez, oraindik gaztegia naiz, baina aurrera begira egingo dut.

Definitu zaitzez pertsona bezala.

Ezkorra naiz, askotan lasterketa aurretik dena beltza ikusten dut eta nire burua izan daiteke nire etsairik handiena. Lagunek burugogorra naizela ere esaten dute. Agian nire buruari helmuga handiegia jartzen dizkiot. Gauza onak beste batzuk esatea nahiago nuke.

Eta kirolari bezala?

Egiten dut, gustuko dudana egiten dute eta orduan ahal duan hobekien egiten dut.

IBARRA ▶ POLITIKA

Ongietorri beroa egin diote Ion Mintegiaga euskal presoari

Bost urte espetxean egon eta gero, atzo utzi zuten aske; Elkartasun Eguna 07-ren baitan egin zioten ongiatorria



12:00etan utzi zuten aske Ion Mintegiaga eta 16:00ak pasata iritsi zen Ibarrra. ESTI EZEIZA



Ongietorri ekitaldian manifestazioa egin zuten aurrea eta jende asko bildu zen. ESTI EZEIZA

ERREDAKZIOA

Atzo utzi zuten aske Ion Mintegiaga Oiarbide *Minde*. Berez 08:00etan askatu behar bazuten ere azkenean 12:00etan utzi zuten aske eta Ibarrratik bere bila autobusean joan zirenak ordura arte zai egon ziren. Espetxetik atera eta aureskua dantzatu zieten han bertan eta ondoren Ibarrra abiatu ziren.

Bidean, Beasainen ongiatorria ematera atera ziren hainbat auto eta 16:00ak aldera iritsi ziren Ibarrra. Iluntzeko 19:30ean ongiatorria egin zioten herriko plazan eta hau izan zen Elkartasun Eguna 07-ren barruko ekitaldi nagusia.

Goizetik hasita eta egun osoan zehar ekitaldi ugari egon ziren Ibarrran: goizean suziriak bota zituzten Ion Mintegiaga jada aske zegoela jakinarazteko, eta zentzu berean, Ibarrra gerturatzen ari ziren heinean hainbat suziri bota zituzten. Eguerdian *Minde*-ren familiak lagunartean bazkaria egin zuten eta 19:30ean ongiatorria egin zioten. Hasieran egin zuten manifestazioan jende asko bildu zen. Ondoren, herri afaria egin zuten, eta gauean Gozategi eta Dj Axeri-Zaharra taldeek kontzertua eskaini zuten dohainik Gaztetxean.

5 urte kartzelan

Ion Mintegiaga 2002ko urriaren 1ean atxilotu zuten Bilbon. Epaiketa 4 urte beranduago egin zioten eta «ETArri laguntza» leporatu zioten. Espainiako Auzitegi Nazionalak 5 urteko kartzela zigorra ezarri zion. 3 kartzeletan egon da preso, azkenekoa Mansilla de los Muñosen (Leon).

AZOKA ▶

Giro epela eta udazkeneko egun ederra atzokoan

Eguraldi onak lagunduta jende asko bildu zen atzo azokan goiz-goizetik

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna animosoa hasi zen goizeko lehenengo orduetatik. Festa giroa Alde Zaharrean, erosle askok buelta goiz egiteko aprobetxatu zuten, eta hasieratik izan ziren mahaietan galdezka. Barazki zerrenda oso beteaz izaten ari da egun hauetan. Udarako eta udazkeneko barazki asko daude salgai mahaietan, eta berrikuntzak aste batetik bestera agertzen dira.

Eskaintzak merezi zuen atzo. Berrikuntza asko izan ziren, eta zerrenda benetan oso osatua zen. Fruta arloan, mizpiradiak eta pikuak izan ziren berri, eta hauekin, errezil sagarrak, reinetak eta hirueskinak saldu ziren, baita udareak, eta gaztainak ere.

Perretxikoen artean, bertako onddo gutxi, gibelurdina gehiago, gorringo batzuk eta ziza horiak ziren mahaietan.

AZOKA ▶

Berdura plaza merk. gares.

Landareak		
Begonia	1,20	
Geranio hiedra	2,15	2,20
Geranio	2,00	
Alegria	1,20	

Bertako produktuak

Perretxikoak		
Onddo	22,00	
Gibelurdina	15,00	20

Fruta

Gaztaina	3,00
Errezil sagarra	1,50
Udarea	1,00
Urrea	4,00
Mizpiradia	3,00

Barazkiak

Babarrun zuria	6,00	8,00
Ibarrrako piparrak	4,00	
Tomatea	2,50	3,50
Porruak	1,50	3,00
Kalabaza	3,00	

Barazkiak (sorta)

Roblea	1,00	8,00
Erremolaxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	10,00
Porruak	1,00	5,00
Loloa	1,00	

LIZARTZA ▶ POLITIKA

500 pertsona inguru ezker abertzaleak deitutako manifestazioan

Manifestazioa amaitu ondoren Belen Zabala alkate izandakoak idatzi bat irakurri zuen

ERREDAKZIOA

Lizartzarron erabakia errespetatu lelopean 500 herritar inguru bildu ziren atzo ezker abertzaleak deitutako manifestazioan. Joan den larunbatean Lizartzan izandako istiluen ondoren deitutako manifestazio hau debekatua izango zela uste bazen ere, azkenean Eus-

ko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakitera eman zuenez Madrilgo Auzitegi Nazionalak ez debekatzea erabaki zuen.

Plazatik abiatu zen manifestazioa eta errepidera atera ondoren Ertzaintzaren bi furgoniek une batez manifestazioa eten zuten arren, azkenean aurrera jarraitu zuen. Plazara itzuli zirenean, ertzain batek



500 pertsona inguru bildu ziren atzo egindako manifestazioan. E. E.

herritar bati nortasun agiria eskatu zion.

Oztopoak oztopo, azkenean denak plazan bildu ziren eta

Belen Zabala alkate izandakoak idatzi bat irakurri zuen. Amaitzeko, *Eusko gudariak* abestu zuten.

GIZARTEA ▶

Gaur eroriko dira azken hostoak



Iruran, dantzari txikiek elizaren inaugurazioaren omenez dantzatu zuten atzo goizean. N. GARCIA



Tolosako Aldaba auzoan, Meza Nagusiaren ondoren hamaiketako egin zuten frontoian. N. GARCIA



Tolosako Alde Zaharrean, zezenen entzierroa eta arko tiraketa izan zituzten goizen. E. EZEIZA

Tolosako bi auzotan eta Iruran izan dira jaiak asteburu honetan; gaur emango diete amaiera sanmielei

ESTI EZEIZA

Jende gehienaren ustetan uda bada ere festetarako sasoirik onena, udazkena ere ez da atzean geratzen. Hotzari aurre egiteko jana, edana eta festa osagai egokiak baitira. Goiz guztian zehar, izan zen zer ikusirik atzo eskualdeko herri eta auzoetan.

Iruran sanmielak ospatzeaz gain elizaren inaugurazioa egin zuten. Hau izan zen eguneko ekitaldi nagusia. 11:00etako Meza Nagusia jendez lepo izan zen, eta oraindik elizkizuna amaitu gabe zegoela suziriak jaurti zituzten jai handia iragartzeko. Meza amaitzearekin batera, herritarrak karrapean bildu ziren agintariei ongietorria emateko. Hauek txistularien doinuen laguntzarekin kaleratu ziren, dantzarien arkuen azpitik igaroz, plaza aldera. Hemen, agurra dantzatu zuten dantzari txikiek.

Tolosako bi auzotan ospatu ziren atzo festak. Aldaban, auzoko altorra den elizan, Meza Nagusiak eman zion hasiera eguneko egitarauari. Jarraian, auzotarrak frontoira bildu ziren hamaiketako egitera. Bestalde, egun osoan zehar, sagardoa eta ardoa izan zen dohainik nahi zuen guztiarentzat.

Alde zaharrean, estreinakoz, Udazkeneko Festa ospatu zuten, arrakasta handiz gainera. Alde Zaharreko kale guztietan nabari zen festa giroa. Izan ere, entzierroan aritu ziren zezenek txoko guztiak hankaz gora jarri zituzten, eta gaztetxo guztiak mugiarazi zituzten. Eguerdian, Plaza Zaharra izan zen jende guztiaren biltoki. Alde batetik, zezenak etorri ziren, bestetik txaranga, eta azkenik, erraldoi eta buruhandiak. Bitartean, la-saitasun handiagoz, arko tiraketan erakusten aritu ziren, goiz guztian zehar, Armeria plazan.

GAURKO EGITARAUA ▶

IRURA (BIKOTEEN EGUNA)

- 10:30.** Haur parkea Labadero plaza. Eurria eginez gero frontoian antolatuko dute.
- 11:00.** Meza nagusia Mikel Goi Aingerua parrokiari.
- 13:30.** Bikoteen dantza-soka plazan.
- 14:30.** Bikoteen bazkaria Zaharren Biltokian. Ondoren musika dantzagaria zuzenean Olatz Korta eta Xabier Zubeldiarekin.
- 17:30.** Haurrentzako herri kiroletako jokuak Zurgai taldearen eskutik plazan. Eurria eginez gero, frontoian.
- 19:30.** *kanpanolue* kale-antzerki musikatu plaza.

- 20:30.** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
- 00:00.** Herensugea erretzea plazatik abiatuta.

ALDABA

- 11:00.** Meza Nagusia.
- 12:00.** Ainara eta Mirenen triki doinuak, eta pilota partidak. Benjaminen maila: Aldalur-Larra eta Garmendia-Peña bikoteak. Kadeteen mailakoak: Urretabizkaia-Bereziartu eta Otaegi-Gailurralde. Helduen mailan: Iburguren eta Alonso, eskuz banakakoan.
- 18:00.** Umeen jolasak. Ainara eta Miren erromerian izango dira. Bukatzeko, aurtengo jaien amaiera.

iragarki laburrak ▶

Furgoneta. Wolsvagen Kalifornia, guztiz hornitua eta egoera onean. Deitu 615 70 10 52ra.

Estetikako apaingailuak. Solarium horizontala, ilea behin betirako ezabatzea eta kamila. Deitu 660 05 76 05era, 16:00etatik 20:00etara.

Etxebizitza. Beasainen etxebizitza

eraberritua salgai. 50 m2, bi logela, altzairuz hornitua. 26 milioi pezeta. 605 76 51 35 / 670 42 24 67.

LANA

Sukaldaria. Larraulgo aterpetxerako sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 31 14 74ra.

Tabernaria. Amasako Iturri-goxo

jatebexan tabernari bat behar dugu, arratsaldeetarako. 943 69 12 10.

Aerobik monitorea. Asteasuko kiroldegia aerobik monitorea behar du. 639 96 70 75.

ALOKAIRUA

Atikoa. Iruran atiko bat alokatzen da. Telefonoa: 685 22 70 58.

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

Carpintería ATARI, S.L.
ARROZTEGIA

K21

Arrozegi melandiano. Obrak eta herritarrek Eskalera eta altzairuak neurriko. Enbuztutako eta likal komertzialerako arrotzategia.

Telefonoa: 685 22 70 58

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko irailaren 30a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **24** hotzena **19** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(balantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Voces 8 abesbatzaren kontzertua San Frantzisko elizan, 19:30ean. Aurretik, Ainhoa Sanchezek 39. Abesbatza Lehiaketako kartela aurkeztuko du.
Tolosa. La Jara Zentroak bidaia antolatu du Extremadurara azaroaren 1etik 4era. Izen-ematea, 230 eurotan, elkartean edo 675 707619 zenbakian.
Tolosa. Caritas-ek mantak eta lozakuak behar ditu lehenbailehen. Bere egoitzara (parroki etxearen ondoan) eraman daitezke edo 943 670571 telefono zenbakira dei daitezke.
Tolosa. San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an izango da. Izen-ematea, Shanti Kirolak-en.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkortaren margolanak ikusgai daude jubilatuen tabernan.
Tolosa. Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorrón marko dendan.
Tolosa. Jesus Elosegik ateratako argazkiak daude ikusgai Aranburu Jauregian.
Tolosa. Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak daude ikusgai Aranburu Jauregian.

ZINEMA

Tolosa. *La jungla 4.0* filma eskainiko dute gaur 19:30ean, eta bihar, ikuslearen eguna, 20:30ean, Leidor aretoan.
Tolosa. *Ratatouille* ikusgai gaur, 17:00etan Leidorren.
Villabona. *Peeper* filma izango da ikusgai euskaraz, 17:00etan, Gurean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
Iruztzun. Gastearena, M. Amaia Kalea, 4. 112.
Bihar
Tolosa. Etxebeste, JM. Gernikako Arbola, 3. 943 651040.
Areso. Goizuetta, F. Loidi Ebea. 112.
▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Begiak zapi batekin estalita zituztela egin zuten arraunean. E. E.



Ziabogetako batean zapia lotu behar zuten, gero askatzeko. E. EZEIZA

Oria, emakumeen aldarri

TOLOSA ▶ Partxiseko lau koloreek Oria ibaia margotu zuten atzo, Euskal Herriko Emakume Arraunlarien I. Topaketan



Talde aurkariak lotutako zapia askatu behar izan zuten atzo egindako jokuetako batean. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Partxiseko koloreak oinarri hartuta, gorria, horia, berdea eta urdina. Ur gaineko jolastoki bilakatu zen atzo Oria ibaia. Izan ere, Emakume Arraunlarien Lehendabiziko Topaketa ospatu zuten atzo goizean, Tolosan.
Joku ezberdinen bitartez, eta ohiko taldeak alde batera utzita, «arraunean dakiten emakumeak badaudela erakutsi» nahi izan zuten neskek. Egindako proben artean, arraunlariak begiak itxita, patroiairen eginduei jarraituz ibaiaren alde batetik bestera joan behar izan zuten.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ainhoa Agirrezabalala (Tolosa). Zorionak Ainhoa! Je Je!



ZORIONAK
Aratz Larrauri Mateos (Alkiza). Bihar urtebete. Muxu asko familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

idealista.com
zure etxea aurkitzea ume jolasa baino ez da doako iragarkiak partikularrentzat